Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felipe Altuna Egidazu

Bergara, Gipuzkoa (1929)



Aurkibidea

Biografia



Elorregi auzoko Bekoetxe baserrian jaio zen 1929an. Aita bertakoa zen, eta ama Arrasateko Arrue baserrikoa. Oñatiko maristetan ikasitakoa. Aitonari eta gurasoei entzundako kontuak oso ongi gogoratzen ditu. Barrenaberri baserrian bizi izan zen. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Zintak

BER-207

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-07-11
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

BER-208

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-07-11
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

BER-209

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-09-20
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

BER-247

- **Proiektua**: Bergarako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Data**: 1992-01-12
- **Iraupena**: 35 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Jatorria; tokian tokiko euskara

- **Erref**: BER-207/002
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:00:15. **Bukatu**: 00:01:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
1929an jaiotakoa Bekoetxe baserrian. Aita bertakoa; ama Arrasatearra. Emaztea, Goierritarra. Euskara desberdinak; toki bakoitzaren berezitasunak.

Transkripzioa
- Hasteko, nun jaixotakua zaran eta ze urtetan kontauko destazu?
- Bueno, milla beratzirehun ta hogeta beratzixen jaio nintzen hor albuen ikusten dan beheko etxien. Ta gure aitte hor jaiua zan, ama arrasatearra. Ta horreatik nere euskerie da puskat nahastua. Puskat bergaratar be bai, baiño asko arrasatear. Ta gero ikesittekue puskat, zeatik eze nere emaztie Goierrikua da ta haren hizkeria diferentie da.
- Bai, gaiñera, ziharo oso diferentia, ezta?
- Bai. Bai, bai, bai. Gurien aldien egokixa da.
- Bai?
- Bai.
- Hemengo euskeria ez da oso...? Edo?
- Ez, erderatik asko hartuta. Hemen Arrasaten, hala´re, erderatik asko hartuta.
- Arrasate ta Bergarako euskeria diferentiak dia?
- Diferentiek die, bai, puskat diferentiek die. Ta Oñatikue be bai, e!
- Bai, ez?
- Bai, bai, Oñatikue dezente diferentie.
- Toki bakoitzak badakaz beran... esaerak eta esateko moduak...
- Ta gero... Goierri aldera-ta beste hizkera diferente bat eitten da, baiño guk asko eitten dou bizkaieraz. Hemen, itxuraz, fronteran...
- Jokera gehixao...
- Bueno, ez dakit, baiña gure jokerie izan da asko Arrasatera. Oñatira zazpi kilometro, Bergarara sei eta Arrasatera hiru.
- Hori da. Ta gero ya bizimodua eitteko...
- Bizimodua eitteko gehixena Arrasatera.

2. Arrasate asko aldatu da; desagertutako baserriak

- **Erref**: BER-207/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:03:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Ama Arrue baserrikoa; bi bizitzako baserria zen. Ingurua nolakoa zen (gaur Eroski dagoen tokian). Arrasate asko aldatu da; asko hazi da. Garai batean 3 lantegi nagusi egon ziren: Zerrajera, Elma eta Arrue-San Martin.

Transkripzioa
- Ama esan zenduan, gaiñera, ze basarrikua zan edo nungua zan?
- Arrue, Arrue basarrikue. Oin Eroski dauen lekuen zauen bi bizitzako basarri bat.
- Oin Arrasateko sarreran, superfizie haundi horretan...
- Bai, bai, Eroski zera supermerkadue dauen lekuen zeuen.
- Eta etxebizitza bi zian...
- Bi etxebizitzakue, bai.
- Eta zelakua zan inguru haura? Zuk ezautu zenduan...
- Ingurue dana soruek. Ta leu-leue zan. Leuteda hori, Eroski dauen leuteda

hori.
- Bai, ikusten da, gaiñera, lautadia.
- Bai, bai, Ta bueltan errekie. Bai.
- Eta dana soluak, ez?
- Han soluek.
- Arrasate asko aldatu da?
- Guztiz. Bueno! Gure ume-denporan Arrasaten ze lau... bost milla lagun edo zien. Ta zeuen, ba, lehengo... oin parte zaharra esaten jakona. Bai.
- Gero fabrika aldetik be asko hazi da ta etxiak be...
- Lehen enpresak hiru izango zien: Zerrajera, Elma eta Arrue-San Martin. Hiru izango zien.
- Ta gerora...
- Gerora, ba, horreik ezkutau dia ya esateko.

3. Baserriko lanak; basoa

- **Erref**: BER-207/004
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:03:10. **Bukatu**: 00:05:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Amaren baserria nolakoa zen. Lautada handia inguruan. Garia, artoa, arbia ereiten ziren. Abereak baserri guztietan; basoko lanak.

Transkripzioa
- Ama, esan dozu, Arrue basarrikua. Basarrixa zelakua zan? Gogoratzen dozu?
- Bueno... Etxe bezela ala basarri bezela?
- Bueno, etxia. Sukaldia ta zelakuak zekazen? Ze zan, halako basarri zaharra?
- Bai, bai, zaharra, basarri zaharra, lehenauko erara puskat.
- Beheko sua ta...
- Bueno, beheko sua gero... nik ezautu nauenian ya ekonomika o zera eukiko zauen, bai.
- Eta ze zan...? Esan dozu dana inguruan soluak zekazela...
- Buelta danien soluek. Bai. Ta hola sail haundixek ez, baiñe behintzat leutadak zien ta leku ona.
- Orduan ze ereitten zan han inguru hartan?
- E?
- Ze ereitten zan? Garixa edo artua edo...?
- Orduen, garixe, artue ta gero negurako ganauendako jana arbixe.
- Alde horretatik ez zan asko aldatuko, ez? Inguru guzti honetan basarrixetan...
- Danak antzera, danak antzera. Gero, patata puskat etxerako ta gero beste baratza sail bat ta kitto.
- Ganaurik eta bazeken?
- Bai, bai. Bueno, ganauak... hemen behixek eta idixek normalien basarri danetan zeren.
- Idixak be bai?

- Bai, bai, bai. Basarririk ez dot uste egongo zanik idirik ez zeuenik. Ta gero, ba, basoko lanak eta garotan ta asko eitten zan lehen.
- Eta derrior idixen indarra bihar...
- Bai, bai, bai. Hola, lan arin samarrak zienien, baserriko lanak-eta arin samarrak zienien, behixekin be ibiltzen zan, baiña normalien idixek.
- Orduan, aman basarrixa haura. Familixia bertan bizi izandakua...?
- Bai, ba, Eroski in arte bertan bizi izan zien.
- Eta aurretik familixa guztia bertan...?
- Bai, bai, bai, bertan, bertakuek.

4. Bekoetxe baserria; ingurua nolakoa

- **Erref**: BER-207/005
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:05:15. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
1735ean, aitaren aurreko belaunaldiak Bekoetxe baserrian bizi ziren. Ingurua nolakoa zen; aldapa handiak.

5. Elorregi auzoa nolakoa zen; baserrien izenak

- **Erref**: BER-207/006
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:06:30. **Bukatu**: 00:08:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Auzoa nolakoa zen. Galdu diren baserriak: Artzubi; Zeleta (Arrasatekoa). Elorregizelai baserria, Conde del Valle bertan bizi izan zen. Oso etxe ederra zen; 4 arkuduna. Tavex lantegia egiteko bota zen. Geltokia ere orduan bota zen.

6. Conde del Valle eta bere jabetzako baserriak

- **Erref**: BER-207/007
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:08:55. **Bukatu**: 00:10:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Conde del Vallek inguruan zituen baserriak. Aramaioko jatorria zuen kondeak,

Murua abizenekoa zen. Emazteak, Elorregi abizena zuen; baserria bere jaiotetxea zen.

7. Auzoaren egitura; baserrien egoera

- **Erref**: BER-207/008
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:10:10. **Bukatu**: 00:12:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Auzoa asko aldatu da. Baserri asko hustu egin dira. Aierdi baserria, labrantzatik bizi den baserri bakarra inguruan. Baserriko bizimodua, gogorra.

8. Gerra ondorengo egoera: baserritik lantegietara lanera; familia ugariak auzoan

- **Erref**: BER-207/009
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:12:25. **Bukatu**: 00:17:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra ondorengo urteetan, poliki-poliki, baserritarrak lantegietara jaisten hasi ziren. 1918ko datuak: 38 baserri; biztanleak... Familia handiak; seme-alaba ugari. Francoren garaian, familia ugarientzat diru-sariak egoten ziren. Auzoan hirukiak izan zituen familia batek; aita-puntakoak nortzuk izan ziren gogoan du: Jose Maria Agirre (Zerrajera eta Altos Hornoseko zuzendaria), Aranburu praktikantea.

9. Auzolanean egiten ziren lanak

- **Erref**: BER-207/011
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:22:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Auzolanean egiten ziren lanak: gari-jotzea; lurreta. Orain dela gutxira arte auzolanean egin izan da. Lana amaitu ostean, afaria egiten zen.

10. Gari-jotzearen inguruko lanak

- **Erref**: BER-207/012
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:22:35. **Bukatu**: 00:25:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Gari-lanak oso gogorrak ziren. Gari-jotzea eskuz egiten zen gerra ingurura arte; gerora etorri ziren makinak. Gari-jotzearen inguruan lan-banaketa. Haizezko makinak garia garbitzeko. Umeen lana zein izaten zen.

11. Baserriaren egitura; noiz berriztutakoa

- **Erref**: BER-207/013
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:25:25. **Bukatu**: 00:28:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
1917an berriztu zen baserria. Baserriaren egitura; sukaldea, logelak, ganbara. 1940 inguruan kendu zen beheko sua. Sukaldea nolakoa zen; tresnak.

12. Bekoetxe baserria, errota izandakoa

- **Erref**: BER-207/014
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:28:45. **Bukatu**: 00:31:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Baserria errota izandakoa zen gerra garaira arte. Etxe ondoan labea. Baserriko ogia. Oremahaia. Amak ogia nola egiten zuen.

13. Ogiaren eta labeko suaren inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-207/015
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:31:05. **Bukatu**: 00:33:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Laberako haritz-egurra erabiltzen zen. Goizeko 06:00ak aldera pizten zuten. Berotutakoan, zuritu egiten zen. Labea nola garbitzen zen. Arto mehea, arto sendoa.

14. Baserriaren egitura

- **Erref**: BER-207/016
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:33:30. **Bukatu**: 00:35:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Baserriaren egitura. Ganbara desberdinak.

15. Baso kontuak: perretxikoak; toponimia...

- **Erref**: BER-207/017
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:35:05. **Bukatu**: 00:40:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:
Gaztainatara joaten ziren umetan. Perretxikotara inguruko mendietan. Toponimia. Albitza; Pikua. Perretxiko izenak.

16. Basoen aldaketa

- **Erref**: BER-207/018
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:40:05. **Bukatu**: 00:41:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:
Perretxikotan egiteko zaletasuna. Basoak desberdinak ziren garai batean. Hariztiak; pagadiak; pinudiak...

17. Erreka oso aberatsa; gainbehera noiz etorri zen. Arrantzan aitarekin ikasitakoa

- **Erref**: BER-207/019
- **Iraupena**: 0:04:35. **Hasi**: 00:41:35. **Bukatu**: 00:46:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Arrantzan aitarekin ikasitakoa. Sareak; esparbela... 1962ra arte bertako erreka oso aberatsa zen. Inguruko herrietatik ere joaten ziren arrantzan egitera. Ezkailuak; aingirak; amuarrainak; karramarroak... Errekaren gainbehera; lantegietako zikinak erreka osoa galdu zuen.

18. Arrantzan egiteko teknikak

- **Erref**: BER-207/020
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:46:10. **Bukatu**: 00:48:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Erreka aberatsa. Zer hartzen zuten azaltzen du. Arrantzan egiteko teknikak: sarea eta esparbela.

19. Arrantzan egiteko teknikak; errekaren gainbehera

- **Erref**: BER-207/021
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:48:45. **Bukatu**: 00:51:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Esparbela erosi egiten zen; etxean egitea zaila zen. Arrantzale amorratua; gehien gustatzen zitzaiona, eskuz arrantzan egitea zen. Errekaren gainbehera.

20. Errekaren inguruko azalpenak; hidronimia, toponimia

- **Erref**: BER-207/022
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:51:15. **Bukatu**: 00:53:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Errotako presa; ateak zabaltzen zirenean errezagoa izaten zen arrantza egitea. Errekako putzu eta toki desberdinen izenak. Toponimia. Lapurzulo izeneko tokia.

21. Gerra garaiko kontuak: frontea bertan izan zuten 6 hilabetez I

- **Erref**: BER-207/023
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:53:25. **Bukatu**: 00:56:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Ume garaia gogorra izan zen. Gerra Zibila hasi zenean, 3 anai-arreba (bera tartean zela) beste baserri batera eraman zituzten, hobe-beharrez. Orduko kontuak. Frontea bertan gelditu zen 6 hilabetean.

22. Gerra garaiko kontuak: frontea bertan izan zuten 6 hilabetez II

- **Erref**: BER-207/024
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:56:40. **Bukatu**: 00:59:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra hasi zenean, Zigarrerokua baserrira eraman zituzten etxeko umeak. 3 egunetan egon ziren bertan. Leihoetan koltxoiak; tiroak gau batean, deskarga handia egon zen. Deskarga aldetik bonbak bota zituzten.

23. Eskola kontuak: erdara; dotrinaren garrantzia...

- **Erref**: BER-207/025
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:59:20. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Eskola kontuak. 6-14 urte bitartekoak elkarrekin ikasten zuten. Aita-amak erdara gutxi; umeek batere ez. Dotrina, abadearen arrebak erakusten zien. Eskolan euskara egitearren zigorra. Gerora Oñatiko maristetara joan zen ikastera.

24. Dotrinaren garrantzia; Pazkoako sermoiak eta eskola

- **Erref**: BER-208/001
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Maristetan ikasitakoa. Azkoitiko irakaslea izan zuen bertan. Juan Arretxe abadearen arrebarekin ikasi zuen umetan dotrina San Prudentzion. Pazkoatan Arantzazutik edo Loiolatik ekartzen zituzten fraideak sermoiak ematera. Dotrinaren garrantzia Feliperen aitaren garaian; eskolaren garrantzia.

25. Pazkoako sermoiak eta txartela

- **Erref**: BER-208/002
- **Iraupena**: 0:04:35. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Pazkoetan Arantzazutik edo Loiolatik ekartzen zituzten fraideak sermoiak ematera. Sermoi oso gogorrak; jendea beldurtu egiten zen: infernua... "Pazkoakoa" egiteko txartela behar izaten zuten; jauna hartzera joateko txartela derrigorrezkoa zen. Gutxi batzuk oso elizakoiak ziren.

26. San Prudentzioko ermita Parrokia bilakatu zen; gertakizuna

- **Erref**: BER-208/003
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:07:50. **Bukatu**: 00:09:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:
Auzoko eliza. 1882an Parrokia izendatu zuten; ordura arte ermita izan zen. Lapurreta egitera ermitara sartu eta auzoko baserritar batzuek lapurra harrapatu zuteneko kontua.

27. San Prudentzioko elizaren inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-208/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:09:25. **Bukatu**: 00:11:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
1800. urtetik aurrera, auzoko hildakoak bertako kanposantuan lurperatzen zituzten. Elizako liburuak bertako parrokian gordetzen ziren; abadea kendu zenetik, liburuak Santa Marinako elizan daude. Sakristaua.

28. Auzoko beste ermita, San Esteban; San Prudentzioren irudia

- **Erref**: BER-208/005
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:11:05. **Bukatu**: 00:13:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
San Prudentzio auzoko beste ermita non dagoen. San Prudentzioren irudia bertan zegoen. Irudiaren inguruko azalpenak.

29. Auzoko ermita, kanposantua

- **Erref**: BER-208/006
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:13:05. **Bukatu**: 00:14:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:
Auzoko kanposantua parrokiaren ondoan dago. Oñati aldera dagoen San Esteban ermitaren kanpokaldean, kanposantua egon zen garai batean.

30. Hileta-elizkizunen inguruko ohitura zaharrak

- **Erref**: BER-208/007
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:16:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
San Prudentzioko parrokiara joaten ziren mezara. Ohitura zaharrak. Etxean hildakoren bat zegoenean, argizaiola eta jarlekua jartzen ziren.

31. Argizaiola nola egiten den

- **Erref**: BER-208/008
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:16:15. **Bukatu**: 00:18:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:
Argizaiola nola egiten zen. Argizaria; ohola.

32. Santa Kruz apaizaren inguruko aipamenak

- **Erref**: BER-208/009
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:18:15. **Bukatu**: 00:21:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Familia kontuak; aitajaunak esandako kontuak. 1872an, beraien etxetik (Bekoetxetik) 50 metrora Santa Kruz apaizak egindako "enboskada".

33. Politika kontuak: liberalak, karlistak

- **Erref**: BER-208/011
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:24:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:
Politika kontuak. Liberalak, karlistak. Baserritarrak ez ziren politika kontuetan gehiegi sartzen. Gerra garaian errepublikazale asko zegoen.

34. Santa Kruz apaizaren ibilerak

- **Erref**: BER-208/012
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:24:10. **Bukatu**: 00:27:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Santa Kruz apaiza oso ongi ikusita zegoen. Haren inguruko kontuak. Tropa liberalak; Santa Kruz apaiza eta haren jarraitzaileak Kanpazar inguruan harrapatu zituzten. Aramaionan preso zegoela, ihes egin zuen Anbotora. Handik, Frantziara joan zen.

35. Karlistak eta errepublikazaleak San Prudentzio auzoan

- **Erref**: BER-208/013

- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:27:40. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:
Gerra aurretik, errepublikanoek indarra hartu zuten. San Prudentzio inguruan bi taberna zeuden, bata karlistena eta bestea errepublikanoena. Beraien arteko borrokak. Francoren tropak sartu zirenean, errepublikanoen kantina hura erre egin zuten.

36. Merkantzia garraioa eta posta banaketa

- **Erref**: BER-208/015
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:32:35. **Bukatu**: 00:35:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Familia kontuak. Bi anaia garraiolari eta korreo bezala ibiltzen ziren.

37. Kontrabandistei buruzko istorioa

- **Erref**: BER-208/016
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:35:05. **Bukatu**: 00:36:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
"Lapurzulo" izeneko kobazuloa. Toponimia. Kontrabandisten inguruko istorioa. Mikeleteek asaltadoreak harrapatu eta zuhaitzetatik esegi zituzten beste batzuen eskarmenturako.

38. Lapurren inguruko kontakizuna

- **Erref**: BER-208/017
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:36:40. **Bukatu**: 00:38:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Lapurren inguruko kontakizuna.

39. Antzinako garraioak

- **Erref**: BER-208/018
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:38:15. **Bukatu**: 00:39:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Anztinako garraioak: zaldidun gurdia; dilijentziak. Lehenagoko kontuak.

40. Lapurren inguruko kontakizuna

- **Erref**: BER-208/019
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:39:50. **Bukatu**: 00:40:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Lapurreten inguruko kontuak.

41. Garraiolarien nondik-norakoa

- **Erref**: BER-208/020
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:40:20. **Bukatu**: 00:42:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Antzinako txanponak. Garaiko garraiolariak nondik nora ibiltzen ziren.

42. Inguruarekin zerikusia duen ipuina

- **Erref**: BER-208/021
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:42:00. **Bukatu**: 00:44:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Toponimia: "Mokorra" eta "Mokorroste". Antzinako ipuin zaharra. Inguru hartan gordetako altxorra. Soldaduendako dirua bertan ezkutatuta omen zegoen.

43. Rafael Arizaga eta beste pertsonaia famatu batzuk

- **Erref**: BER-208/022
- **Iraupena**: 0:05:25. **Hasi**: 00:44:45. **Bukatu**: 00:50:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Rafael Arizaga, auzoko etxe batean jaiotakoa (Sagastietxea). Nietzsche filosofoaren laguna. Gregorio Mara&#65533;eta P&#65533;Baroja bertara etortzen ziren. Familiaren inguruko kontuak. Etxea duela 25 urte inguru erre zen. Etxea nolakoa zen.

44. Auzoko neska-mutilen ibilerak gerra garaian

- **Erref**: BER-208/023
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:50:10. **Bukatu**: 00:52:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Sagastietxea. Gerra garaian, auzoko neska-mutilak bertan elkartzen ziren eta gramofonoa entzuten zuten. Familia nolakoa zen. Lursail handien jabeak.

45. Rafael Arizaga eta auzoko bizilagunak

- **Erref**: BER-208/024
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:52:10. **Bukatu**: 00:55:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:
Rafael Arizaga nolakoa zen; gizon jatorra. Auzokoekin hartu-emana nolakoa zen. Berorika egiten zioten.

46. Rafael Arizagaren inguruko anekdota

- **Erref**: BER-208/025
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:55:40. **Bukatu**: 00:57:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Trenbideko langileak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Rafel Arizagaren inguruko kontua. Trenbidearen tunela egiten ari zireneko pasadizoa. Euskaldun jatorra.

47. Unión Cerrajerako langileak eta Rafael Arizaga

- **Erref**: BER-208/026
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:57:50. **Bukatu**: 01:02:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Antzinako kontua. Zerrajerako langileak lanik ez zutenean errekako harea ateratzen zuten, Rafael Arizagaren baimenarekin. Guardia zibilak atxilotu egin zituen behin eta orduko kontuak.

48. Basoen eta zuhaitzen inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-209/001
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Basoak nolakoak ziren bera gaztea zenean; batez ere haritza eta gaztaina. Itxiturak nolakoak izaten ziren. Zumitza; asto-banastak. Saskiak. Gaztaina, egur egokiena. Egurrari ematen zitzaion tratamendua. Gaztaina zaharrak bota eta "puja-barrittu" egiten zen. Saskigileak.

49. Zuhaitzak botatzeko urte-sasoi egokia

- **Erref**: BER-209/002
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Gaztainak, neguan botatzen ziren. Haritza eta pagoaren kasuan, ilbeheran gainera. Pago-egurra, oso egur ona lantzeko.

50. Ikazkintza; zuhaitzen ezaugarriak

- **Erref**: BER-209/003
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:08:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Txondorrak. Haritz-motza eta txara ugari. Ikazkin ugari. Bera gaztea zenerako, pinu asko. 1945 urte inguruan, sute handi bat egon zen. Lehenagoko pinu klaseak. Zuhaitzen ezaugarriak.

51. Haritz motza; pago, haritz tantaiak

- **Erref**: BER-209/006
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:13:10. **Bukatu**: 00:17:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Haritz motza; ezaugarriak. Lehenago baserritar gehienak errenteroak ziren eta haritz motzaren kasuan, zuhaitzaren burutik gora hasitako adarrak errenteroarenak izaten ziren; hortik behera, ugazabarena. Pago, haritz tantaiak. Txara.

52. Pinudiak nola zaindu behar diren

- **Erref**: BER-209/007
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:21:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Pinudiak nola zaintzen diren. Udaberrian garbitu behar da. Pinua noiz bakandu behar den. Pinuaren mozorroa.

53. Zuhaitzen gaitzak

- **Erref**: BER-209/008
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:21:15. **Bukatu**: 00:23:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Zuhaitzek izaten zituzten gaitzak. Lehenago gaztainadi ugari; urte gutxitan denak galdu ziren. Zumarrak izaten zuen gaixotasuna.

54. Egur klaseak; zuhaitza noiz bota behar den

- **Erref**: BER-209/009
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:23:45. **Bukatu**: 00:25:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Egur klase desberdinak; bakoitzaren ezaugarriak. Zuhaitza botatzeko sasoirik onena, negua. Ilbeheran botatzearen garrantzia.

55. Pinuaren inguruko argibideak

- **Erref**: BER-209/010
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:25:55. **Bukatu**: 00:27:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Pinua noiz garbitu behar den.

56. Zuhaitzen inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-209/011
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:27:45. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Zuhaitzen inguruko kontuak. Egurrik onena, ukitu gabeko zuhaitzarena omen da. Baina egun, pinua asko zaindu behar dela esaten da. Egur korapilatsuak. Intxaur beltza.

57. Zuhaitzen inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-209/012
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:29:30. **Bukatu**: 00:30:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Negu aldean zuhaitzek ez dute urik jasotzen. Urtarrilean hasten dira arrotzen. Erretxina.

58. Pinu klaseak

- **Erref**: BER-209/014
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:33:05. **Bukatu**: 00:36:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Pinu klase desberdinak; inguruko lehenengo pinuak Oñatitik etorriak omen dira. Orduko ipuin zaharra. Adán de Yarzak Lekeitiora ekarritako pinua.

59. Pinu klaseak; ezaugarriak

- **Erref**: BER-209/015
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:36:05. **Bukatu**: 00:37:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Pinu "maritimoa"; beste klase batzuk. Bakoitzaren ezaugarriak; azalpen sakona.

60. Ikazkintza

- **Erref**: BER-209/016
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:37:10. **Bukatu**: 00:39:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Antzina, baserritar asko negu aldean elkartu egiten ziren, eta basomutil ibiltzen ziren. Ikatza egiteko, pagoa eta haritza erabiltzen ziren batez ere. Artea.

61. Basoko animaliak; txoriak

- **Erref**: BER-209/018
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:42:00. **Bukatu**: 00:46:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Fauna

Laburpena:
Basoko animaliak. Aitak, eperrak ezagutu zituen. Feliperen garaian, ez eper eta ez galeper. Soroetan lehenago gari ugari ereiten zen. Garia landatzen uztearekin batera, animalia asko jateko gabe gelditu eta inguru honetan galduz joan dira. Pinudiak ere ugarituz joan dira eta txori-klase asko desagertu egin dira paraje hauetan. Azeriak; basurdeak; erbiak.

62. Ehiztarien inguruko zenbait kontu

- **Erref**: BER-209/020
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:47:15. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Basurdetan; erbitan. Ehiztarien inguruko hainbat kontu.

63. Ehiza: pasa eta kontrapasa

- **Erref**: BER-209/022
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:51:45. **Bukatu**: 00:54:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Usotan. Bera mutikoa zenean udazkenean paseko usoak sarri ikusten zituzten. Pasa eta kontrapasa.

64. Fruta-arbolak nola mentatu

- **Erref**: BER-209/024
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:55:40. **Bukatu**: 00:58:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Fruta-arbolak nola mentatzen diren. Beti txertatu izan dira.

65. Fruta-arbolak txertatzeko garai egokia

- **Erref**: BER-209/025
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:58:45. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Fruta-arbolak zergatik txertatzen diren. Mentatzeko sasoi egokia noiz den. Gaur egun nola txertatzen diren; teknika asko aldatu da.

66. Elorregi auzoko toponimia

- **Erref**: BER-247/003
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:15:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Elorregi auzoko baserrien izenak eta kokapena. Elorregi auzoko toponimia.

Transkripzioa
- Hau balitzake gaizki egotia, e?
- Hemen... Ez, ez, hemen mugan dao, e? Hemen eitten daue, itxuraz, bizimodua eitten daue Oñatin ta lo eitten dau Bergaran. Dao erdi-erdittik, muga-mugan.

- [ez da ikusten sakoneta].
- Bueno, gero hemen besten bat [...].
- Bai, hemen bi azaltzen die bakarrik. Ta, gero, ba, [...] honek izango dia Oñeti partera.
- [...].
- Hau da Domiñena...
- Bai, bai.
- Hau da Domiñena, ez?

- Bata errotia da ta bestia...
- Bai horrek Oñetin daz, Oñeti partian. Bai.
- Gero bidian jarraittuaz errekondotik...
- Bai, hor besterik ez dao. Ta gero, zera, Barrena.
- Ta hau, berrixa?
- Ta hau Barrenaberri goikua.

- [...] ta gero bestekaldera dao Mondrau partera sartzen da Izarreta ta hemen dao Arzubi.
- Muga-mugan?
- Muga-mugan. Arzubi. Arzubi, bi bizitzakua.
- Hortik errekan gora junda, ez zoskuen jakin argitzen hor zeoze zeuan ez ete zeuan...
- Hamen markauta zeuan...
- Bai, baiña hori Mondrau aldetik dao, e! Barrenazar.
- A! Barrenazar da?
- Barrenazar bai, baiña Mondrau aldetik dao, e?
- A!
- Arrasate. Arrasate.

- Eske gero esan zoskuen bazeuela hamen beste basarri bat Epele.
- Barrenazar dau izena beria.
- A! Ta bixak... osea, berdiña da?
- Bai. Zeatik, itxuraz, hor Udalaitzen-ta minak egon zienien edo, hor orduen horrek, zerak, palanketak zulatzeko hor —nik ez dakit, ba— zorroztu edo gertau edo hor eitten zien, itxuraz. Ta gero hemen. Horreatik Barrenazar da hori. Zera, Epeleko errotie, baiña bestela izena, bere izena, Barrenazar.
- Ta Arrasate partian, orduan?
- Bai. Bai, justo-justo errekian bestaldetik dao.
- Errekiak izena?
- Epele erreka.

- Beste errotan bat edo turbinan bat edo...?
- Ez. Goixan bai. [...] parte hori, Angiozar partera.
- [...].
- Hau txabolia da, uste dot.
- Bai. Hau erreka-errekan ez dao...
- Ez, ez, aparte dao gora. Bai, bide bat azpittik eta bestia gaindik dala. Hau Lope, Lopeko txabolia.
- Bai, hori da.
- Bai. Gero onduan hamen dao errota bat, beste errota bat... Bueno, horrek eindda daukatzue...
- Bai.

- Errekatxuen izenik bai hemen ingurukoik?
- Hemen Ziarrerotik behera...
- Behera hauxe [...].
- [...].
- Ez, ez, hau guk ipini dou oin, e!
- A!
- Otsazulo. Baiña hori ez dakit, ba, nik hori dan. Gura dozue preguntaittia?

- (Telefonoz) Hor eskonbreria eitten bajabizek, ba, Epele aldera? Horrek errekatxuorrek ze izen dauken badakik? Horrek zuluorrek. [...] Kortatxo arrue? Hor zuen txabolatik behera, Epelera doiena. Goiko txabolatik. [...] handik behera doiak errekatxue, eztok? [...] zuluen, e? Ya, ya. Bestela esan dok Kortatxo arrue, eztok? Bai, bai, bai. Bueno, bueno. Bai, gero arte.

67. Santa Cruz apaizaren pasadizoa Elorregi auzoan

- **Erref**: BER-247/004
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:17:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Elorregi auzoko toponimia. Santa Cruz apaizaren inguruko pasadizoa.

Transkripzioa
- Bueno. Esan dau Kortatxo arrua edo berak esaten dabela.
- Errekiai?
- Honi. Kortatxo arrua hau.
- Hemen gehixao badao basoik edo?

- Bueno, errekatxuak... [hemen dao errekatxua]... Mokorroste. Mokorroste. Hemen dauen tontorra da, hau tontorrau. Hemen guk esan izen dotsau Mokorrosteko errekatxua. Gero...
- Alde honek [...].
- Beste bat —egon, e— hemen dauena, hau, hauxe, [hau zuluau], Urasketa. Zeatik eze hemen lehen egon zan... [...] oin hemendik dao bidia, baiña lehen izen zan [hemenditxik ingurutik] lehengo “camino real” edo esaten jakona, lehen hemen goittik egon zan. Eta hemen egon zien ur-aska batzuk. Justu-justuen ezautu nauen lehenau, ba, zaldixek, zera, kotxiek, zaldixek... zaldixendako, ura erateko leku bat. [Hemen egon zan gauza] zer bat: hori, Santa Cruzek zerak... liberalak hor harrapautako zera... hamen... [segundan edo hartutako moskete] pilla bat Donostia aldera [zekartzela] hemen harrapau zittuen Santa Cruzek eta danak hartu ta Kanpazarrera ihes ein. Hori izen zan hementxe, hemen [kamiñuen] tontortxuen, hemendik pasadan.

68. Elorregi auzoko toponimia

- **Erref**: BER-247/007
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:25:00. **Bukatu**: 00:30:00

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Elorregi auzoko toponimia. Auzoaren bi alderdiak: "Albitza" eta "Pikua".

Transkripzioa
- Bai. Dauka izena Albitza. Hau... alde hau danau. Alde hau danau Irutontorretaraiño Albitza.
- Baiña izena da ala gaitzizena da?
- Ez, izena. Bai. Hori zeatik bedarraatik edo zeatik dauen ipinitta ez dakit, ezta? Baiñe...
- Hamendik gero...
- Hemen, hemen...
- Errekatik Irutontorretaraiño doia?
- Bai, bai.
- Olaraiño?
- Bai, bai.
- Eta auzuak ze izen dauka?
- Elorregi.
- Elorregi?
- Elorregi. Lehen San Prudentzio... bueno, San Prudentzio ermittiaatik... Lehen Elorregi zan. Auzua Elorregi. [...] San Prudentzio. Baiña hori 1840an Elorregi zan. Ta gero, itxuraz, parrokixie ein zanien poliki-poliki jentia hasi San Prudentzio esaten ta San Prudentzio. Baiña bere izena Elorregi da.
- Eta gero hau Epele alde hau ze da? Epele auzune bezela konsideratzen da?
- Ez, ez, ez, ez, errekia bera da hori.
- Nun dao mugia Angiozar eta Elorregi...?
- Hementxe.
- A, hor...
- Bai, hementxe dao.
- Hortik Irutontorretaraiño?
- Bai. Hor inguru hori da. [...] mugarrixa hementxe dao behekua; goixen

[…].
- […]
- Erreka hau zela esan dozu?
- Hau Kortatxo erreka.
- Ta lehen esan dozu Kortatxo arrue…
- Bueno, Kortatxo arrue, arrue, arrue.
- Arrua ta erreka berdiña da?
- Bueno, bai. Berdiña ez da, baiñe… Arrua da zulo… zera, zulue.
- Bai, terrenua edo…
- Bai, bai.
- […].
- Ba, “valle” edo […]…
- Bai, bai, bai.
- Arrua da…
- Otsazulo ta Kortatxo arrua gauza bera dia?
- Ba, bueno… Otsazulo nik ez dakit seguru nun dan, ezta? Baiña horrek esan dau, bertan hemen Ziarrerokuak esan dau, erak Kortatxo arrua esaten dotsela. Bai.
- Beste zeoze okurritzen jatzu hemen inguru honetan?
- Bueno, hemen… hemen bertan entenditzen gara hau aldiau Albitza ta beste aldia Pikua??]. Zera, hau berau, ba, esaera moduan, ez dakit zeatik dan, […] errekatik alde hontara dana Albitza ta beste aldetik… Baiña zeatik dan ez dakit, lehenauko esaerak die ta.
- Elkorokuak… ze izen zeukan Elkorokuak?
- Julian.
- Elkoroko aittita izango da…
- Julian, bai.
- Harek esaten eban zera balitz bezela, gaitzizena balitz bezela.
- Albiztarrak eta pikutarrak.
- Bai, bai. Nik ez dakit zeatik dan.
- Behintzat…
- Bai, zeatik errekatik alde batera Albitza ta beste aldera Pikua. Ez dakit nik […], zeatik edo nundik datorren ez dakit.

69. Elorregi auzoko baserriak; auzoaren mugak

- **Erref**: BER-247/008
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:35:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Elorregi auzoko baserrien izenak eta kokapena. Auzoaren mugak.

Transkripzioa
- Hemen Zaldumendi. Hau Zaldumendi Bergarakua da hau. Zalgomendi hemen esan izen daue, e! Edo Zalgumendi edo… “g”-kin.
- Hemen beste bat daukau…
- Aristi.
- Hemen bi etxe […Sakune] edo…?
- […Sakune] izengo da.
- Ta gero hamen, hau be sakon baten dau, ta hemen dare…
- Bai, Aierdi, Aierdi […], Aierdigaiñekua ta Aierdiazpikua.

- Hortik behera doian errekia?
- Hau gaiñekua, e! Ta bestia azpikua.
- Bai. Hor erreka moduko bat edo Aristi ondotik doiana? Bueno, ez dakit daon be, e! […]. Gero beste erreka luze hori?
- Hau Otaitzerreka ez da?
- […]
- Otaitzerreka, Abeletxetik gora.
- Ermittia ta… […]
- Elkorobarrutia esaten da, baiña hemen Elkoarte.
- […]?
- Bai.
- Nun da…? Elorregi nun hasten da ta nun bukatzen da?
- Ba, Elorregi da Elkoromiño.
- Elkoromiñoraiño.
- Elkoromiño… Ta hamen etxe hau […]?
- Ez, etxe hau ya…
- Bestekaldian?
- Bestekaldian. Hori zera da, San Migel de Aritzeta.
- Eta bestekaldian barrenian ze daukau?
- Bestekaldian hasten da Bentabarri. Hori, Bentabarri, hemengo Elorregikua da. Hemen markauta dao.
- Bai, batenbatek […].
- Bai, hortik hasten da.
- Ondoko […]?
- Ez dozu jakingo kasualidadez… Elkoromiño badakizu zela dauen lutadatxo baten gaiñian. Lautadatxo horrek izenik […]?
- […].
- Hemen inguruan […].
- Hau ze da, aldapa haundiko mendixa, ez?
- E?
- Aldapa haundiko mendixa.
- Bai, Irutontorreta bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com